



Euskadi Gastronomikak Sagardomapa aurkeztu du

📅 Ots 25, 2020 📍 Esperientziak, Gastronomía, Museok, Sagardoa, Sagardotegiak, Turismoa 🗨️ 0 comments



Turismo, Merkataritza eta Kontsumoko sailburua den Sonia Perez Ezquerrak eta Sagardun Partzuergoko presidentea eta Astigarragako alkatea den Xabier Urdangarinek sagardoaren kulturaren lehenengo mapa tematikoa aurkeztu dute sagardo elkarteekin batera.

Gastronomiako Euskal Anaiartean izan da gaur Turismo, Merkataritza eta Kontsumo Sailak egindako Sagardomaparen aurkezpena. Bertan izan dira Sagardomapa egiten lankidetzan aritu diren elkarte hauek: Sagardun Partzuergoa, Gipuzkoako Sagardogileen Elkarte, Sagar Uzta elkarte; Bizkaiko Sagardogileen Elkarte; Sagardo Mahaia; Arabako sagar eta sagardogileen elkarte; Ciderlands eta Euskal Sagardoa.

Sagardomapa **sagardoaren eta sagardotegien munduaren lehenengo mapa tematikoa da**, bisitatzen gaituztenei eskainia, eta gastromaparen hedapen bat. **Sagardogintzan diharduten 83 upeltegik osatzen dute mapa, Sagardoetxeaz eta Igartubeiti baserri museoaz gain**; euskal sagardoaren kultura ezagutzera ematen diharduten bi museoak.

Sagardomapa sagardotegietan, turismo-bulegoetan, gidei eta agentziei banatuko zaie, baita eskatzen duten sektoreei ere.

“Sagardoaren mundua tradizio bat baino gehiago da Euskadin”, gogora ekarri du sailburuak, “erritual bat da, eta enogastronomia ulertzeko modu bat, sozializatzeko eta esperientzia berezi bat bizitzeko. 60 Sagardo Egun baino gehiago ospatzen dira herri desberdinetan. Gaur egun, 20 esperientzia baino gehiago eskaintzen dira sagardoaren kulturaren inguruan, gastronomiarekin, itsasoarekin, historia duten herriekin eta turismo aktiboarekin lotuta”.

Euskadiko sagardotegiak 800.000 pertsona inguruk bisitatzen dituzte urtean. Sagardoak hazkunde nabaria izan du mundu-mailan, bai bere ekoizpenari bai berari lotutako turismoari dagokienez.

Izan ere, horren erakusgarri ditugu hainbat proiektu, besteren artan, **Ciderlands Makers and Lovers**: Euskadik bultzatuta sortu den nazioarteko sare bat, sagardoaren kulturaren inguruko helmugena, non Europako 10 helmugak parte hartzen duten.

“Gainera, turismo gutxien etortzen den datetan egiten diren ekitaldiak dira. Horregatik, Turismo Sailarentzat, sagardoa bezalako produktuek berebiziko garrantzia dute, jasangarritasunarekin lerrotatzen direlako bere funtsezko oinarrietako batzuei esker: **turismoaren banaketa lurralde osotik eta desestazionalizazioa**. Gure politikak lagundu egin behar dute fluxu gutxien jasotzen duten lekuak bultzatzen **barrualdeko turismoa** sustatuz, baita gutxien ezagutzen diren baliabideak ere, udalditik urruntzen diren garaietan. Eta horretan sagardoaren kultura dugu aliatu nagusia” esanda amaitu du Sonia Pérez Ezquerrak.

Txekea ematea Zaporeak erakundeari

Sailburuak aurkezpen hau aprobetxatu du egin den herri-bazkari solidarioan bildutako diruaren txekea Zaporeak erakundeari emateko.

Azken egun hauek gastronomiari eskaini zaizkio Donostian, Guía Repsol Eguzkiak sarien banaketaren esparruan: kaleko jarduerak herritarrekin, chef onenek landutako pintxoak bermut kolektibo batean, eta putxerez eta lumagorritz osatutako herri-bazkari bat. Bazkarian ia 5.000€ euro bildu dira, Zaporeak erakundeari eman zaizkionak.

Bilatzailea

<input type="text"/>	Bilatu
----------------------	--------

Kategoriak

Agenda

Argitalpenak

- Azokak
- Berriak
- Ekitaldiak
- Erakusketak
- Esperientziak
- Formazioa
- Gastronomia
- Historia
- Kultura
- Lehiaketak
- Museoak
- Sagardoa
- Sagardotegiak
- Sagarra
- Sagastia
- Turismoa

Artxiboak

Hautatu hilabetea



ZATOZ ETA GOZATU

**SAGARDOAREN
LURRALDEA**
el territorio de la vida

Kale Nagusia, 48

20115

Astigarraga

Gipuzkoa

LAGUNTZA BEHAR DUZU?

 **943 550 575**

JARRAI IEZAGUZU...



ESPERIENTZIAK

Zure plana erreserbatu

Hautatutako ibilbideak

Beste proposamenak hemendik gertu

Nola mugitu

Non lo egin

Gidak eta informazio praktikoa

SAGARDOTEGIAK

Sagardotegia erreserbatu

Sagardotegia aukeratu

Garraioa sagardotegietara

Sagardotegiaz goatzeko gomendioak

SAGARDOETXEA

Sagardoetxea – museoa

Erakusketa eta bisita guneak

Bisita motak

Nola iritsi eta sarbideak

Tarifak eta ordutegiak

Bisita erreserbatu

Bisita birtuala

Dokumentazio Zentroa

SAGARDO FORUM

Sagardo Forum

Jardunaldi teknikoak

Nazioarteko Sagardo Lehiaketa

Emaitzak

Nazioarteko Sagardo Azoka

Izen ematea

Talde teknikoa, hizlariak eta epaileak

Prensa bulegoa

Aurreko edizioak

AGENDA

BLOGA

HEDAPENA

Boletina

Buletinera harpidetza

Sare sozialak



© 2020 Sagardun Partzuergo publiko-pribatua
LEGEZKO INFORMAZIOA

[NOR GARA](#)
[PROIEKTUAK](#)
[AKORDIOAK](#)
[KONTRATATZAILEAREN PROFILA](#)